

Iuma Errea

## Hiriak, espazioak, gorputzak, gu

**B**

ederatzi urterekin herritik hirira bizitzera joan nintzenean, espazio gehiegi okupatzen nuela sentitzen hasi nintzen.

Herrian nahi beste espazio nuen, nahi bezala mugitzeko. Etxea handia zen, larreak eta zelaiak eskura ziren, saltoka eta korrika ibiltzeko, malda eta aldapetan gora eta behera abiatuta. Herriko kale ia araugabeetan auto gutxi ibiltzen ziren. Eskolan, hamar bat ikasleendako toki nahikoa zegoen, ikasgela bakarrean.

Iruñean, pisua askoz txikiagoa zen, eta kaleetan kontu handiz ibili behar izaten genuen trafikoarekin. Ikastetxeko ikasgeletan berrogeina neskak ikasten genuen, eta patiora edo gimnasia joateko, lerroka eta isilik mugitzen ginen, zigorraren mehatxupean.

Han espazio gehiegi okupatzen nuela sentitzen hasi nintzen, eta sentipen horrek sorbaldak uzkurtera behartzen ninduen. Orain, batzuetan, estresak hartuta nagoenean, sorbaldak uzkurtuta harrapatzen dut nire burua.

Iruñeko kaleak zapaltzean konprenitu nuen herriko eskolan ulertu gabe ikasitako trafiko seinaleen misterioa: semaforoen eta zebrabideen funtzionamendua.

Iragan udazkenean, Felix Ortega pintore iruindarraren *Corazón de Tokio* izeneko erakusketara joan nintzen. Ortega zebrabideak margotzen ditu. Hobe esanda, Ortega ikusleoi oinezkoen pasabideak gogora dakarzkigun ezinezko zebrabideak margotzen ditu. Pintoreak hiria hartu du gogoetarako gai. Hiria, eta hiritar-hiritarrak. Hiria aldi berean publikoa eta pribatua den eremutat hartuta, eta hiritarrak, gu, hiriak hiri izateko ezinbestekoa duen osagai gisara.

Ziudadelako erakusketan, Felix Ortega benetako pasabidea margotu zuen koadroen arteko korridorean, erakuske-



MIKEL SAIZ

taren erdi-erdian. Ikusle gutxi ausartu zen hura zapaltzen. Jendea ertzetatik abiatzen zen margoak ikustera, apalki.

Iruñean, Ortega erakusketa egin zuen garai bertsuan, bi agure hil ziren, bi emakume, zebrabide banatan auto banak harrapatuta. Zebrabideak benetan al dira oinezkoen pasabideak?

Iruñean –eta Bilbon ere bai, ikusi berri baitut–, semaforoak saski-baloiko partida desorekatuak dira: 87 eta 23 markatzen dute bide printzipaletan, 87 segundo, autoendako, 23, oinezkoen alde. Oinezkook multzo handitan egoten gara, gure hogeitasegundoen zain, eta elkarki bultzaka aritzen gara batzuetan, argi berdearen kontrako lasterketa zoroa irabazteko.

Herri txikienetan ere, auto ugari ibiltzen da orain, herritarrek autoa behar baitute, lanera abiatzeko, seme-alabak garraiatzeko, erosketak etxeratzeko. Nire txikitako herrian, Zilbetin, magnesita-harrobi bat zabaltzeko asmotan dabil-tza. Herrikoei, harrobia irekitzen utziz gero, errepide berri on bat agindu diete. Eta hainbat lanpostu. Herri txikiek zebrabideak eta semaforoak baino ez dute behar, hiri bilakatzeko.

Iruñean, eta berdin gainerako herri eta hirietan, ezinezko manikiek begiratzten digute hala kaleetako erakuslehoetatik nola etxeetako telebisita-pantailetatik. Manikien neurriak eta tamainak ezinezkoak dira, oro har irrealak, baina oso egokiak, hirietako espazio gero eta estugarriagoetarako. Herritarrok gure espazioak bestek –agintariek?– zedarritzea txintik esan gabe onartzen ikasi dugu, baita gure gorputzerak besteren –noren?– interesen arabera moldatzen ere.

Nolako herriak, halako agintariak omen. Nolako agintariak, halako espazioak... Nolako espazioak, halako gorputzak? ■

Iruñean, Felix Ortega erakusketa egin zuen garai bertsuan, bi agure hil ziren, bi emakume, zebrabide banatan auto banak harrapatuta. Zebrabideak benetan al dira oinezkoen pasabideak?